



## TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2018KO ABENDUA

Abendua oso beroa eta oso lehorra izan zen. Muturreko egoerei dagokienez, lasaia izan zen hilabetea. Itsasaldeko abisuak izan ziren aipagarrienak eta ez zen elurragatik abisurik igorri, elurra ez baitzen 1200-1400 metrotik behera jaitsi. Neguaren hasiera, beraz, oso egonkorra izan zen, Afrikako gailur antiziklonikoari esker; gailur horrek depresioguneak Penintsula Iberikotik urrun mantendu zituen hilaren azken egunetara arte.

### Prezipitazioa

Abendua EAEn oso lehorra izan zen. Leku gehienetan, pilatutako prezipitazioa ohikoa denaren erdia izan zen, Bizkaian eta Araba erdialdeko zenbait lekutan are gutxiago. Lau estaziotan baino ez ziren 100 mm baino gehiago pilatu, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan dauden mendi inguruetan daudenak, hain zuzen ere (Eskas 138.4 mm, Berastegi 130.8 mm, Añarbe 127.9 mm, Ameraun 127.2 mm). Horien atzetik egon ziren Gipuzkoako beste estazio batzuk (Zegama 91.3 mm, Ereñozu 85.3 mm, Bidania 82.7 mm). Bilbo Handian 30 mm inguru baino ez ziren pilatu (Derio 35 mm, Abusu 30.8 mm, Galindo 25.4 mm). Prezipitazio kantitate baxuenak Araba hegoaldekoak izan ziren, Arabako Lautada barne (Arkauti 20.7 mm, Zambrana 20.7 mm, Moreda 19.2 mm).

Prezipitazio-egunak ( $\geq 1$  mm) batezbesteko klimatologikoaren erdia izan ziren, kantauri isurialdean 7 inguru, Mediterraneo isurialdean 3, gehienak hilaren erdiko egunetan.

Pilatutakoaren parte handi bat hilaren 13an eta 14an pilatu zen. Egun horietan Gipuzkoa ekialdean euria oso ugari egin zuen (hilaren 13an Berastegi 53.5 mm, Ameraun 49.3 mm, Añarbe 48.4 mm; hilaren 14an Eskas 55.8 mm, Añarbe 50.8 mm, Berastegi 47.7 mm). Abenduan egun horietan soilik izan zen prezipitazioa oso ugaria.

Bi egun geroago, hilaren 16an, izan genuen egunik euritsuena lurraldearen hego-ekialdean, baina 20 mm inguru baino ez ziren pilatu (Salvatierra 21.9 mm, Zegama 21.4 mm, Ilarduia 20.6 mm, Kanpezu 18.1 mm, Páganos 15.2 mm).

Elurrari dagokionez, hilaren 13an, 16an eta 19an soilik kokatu zen elur-kota 1500 m-tik behera, 1200-1400 m- inguruan, hain zuzen ere.

**Taula 1: Azken urteetan abenduan pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	16.8	227.5	37.8	9	153.5	48.3	81.4	86.9	127.4	68.8
Lasarte	88.0	237.6	21.2	17.5	217.3	90.2	138.5	172.4	143.2	103.0
Arrasate	53.4	287.3	19.8	11.8	272.9	82.1	123.9	203.4	127.7	81.3
Abetxuko	21.0	131.5	12.3	10.8	119.7	36.4	30.3	70.0	73.7	52.8
Páganos	26.9	44.3	7.0	4.2	71.6	31.2	26.3	21.7	34.0	105.5



## Temperatura

Batez besteko temperatura oso beroa izan zen orokorrean. Kostaldean 12 °C ingurukoa izan zen, Arabako Lautadan 6.5 °C ingurukoa, hau da, EAE osorako normala dena baino 1.8 °C altuagoa. Azken urteekin alderatuz, balio hauek altuenen artean daude, 2002koen, 2015ekoen eta 2003koen ostean.

Egun guztiak beroak izan ziren hilaren amaierara arte, orduan egunak hotzak izan ziren.

Hilaren lehenengo eta hirugarren herenen hasieran izan ziren bero-anomaliarik altuenak. Zehatz-mehatz, hilaren 2tik 5era eta 21etik 22ra: kantauri isurialdean temperatura maximoak 15-20 °C ingurukoak izan ziren, minimoak 10 °C\_tik gorakoak, batez ere kostaldean. Temperatura maximo altuenak hilaren 4an neurtu ziren, Bizkaiko zenbait eskualdeetan eta Gipuzkoako tokiren batean 20 °C-tik gorakoak (Derio 20.9 °C, Aranguren 20.8 °C, Igorre 20.7 °C, Ibai Eder 20.4 °C, San Prudentzio 20.2 °C). Araba erdialdean temperatura ez zen hain altua izan (Salvatierra 18.3 °C, Moreda 17.3 °C, Navarrete 17.3 °C).

Temperatura minimoei dagokienez, baxuenak hilaren amaieran neurtu ziren, inbertsio termiko handiaren ondorioz. Hilaren 31an Mediterraneo isurialdeko bailaren hondoetan izotz txiki-handia egin zuen (Ozaeta -4.6 °C, Trebiño -4.4 °C, Pagoeta -4.4 °C, Salvatierra -4 °C), baita kantauri isurialdeko zenbait lekutan ere (Berastegi -4.1 °C, Balmaseda -3 °C).

Izotz-egunak espero zitezkeenak baino gutxiago izan ziren. Bilbon eta Donostian ez zuen izotzik egin, sasoi honetarako batezbestekoa 2-3 izotz-egun izan arren. Gasteizen 7 izotz-egun izan ziren.

Intsolazioa kantauri isurialdean ohikoa izan zen (75-95 ordu artekoa), Mediterraneo isurialdean, berriz, ohikoa dena baino %50 handiagoa (120-140 ordu artekoa).

**Taula 2: Abenduan, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	11.5	9.2	12.0	15.0	10.3	10.9	12.0	11.5	9.1	10.5
Lasarte	10.9	8.2	10.4	13.9	8.4	9.6	10.4	10.3	8.1	9.1
Arrasate	8.6	5.9	7.6	10.5	6.4	6.9	7.9	7.4	5.2	7.5
Abetxuko	6.4	4.6	5.1	6.5	5.6	4.5	6.2	6.0	3.2	5.4
Páganos	6.2	5.1	5.4	6.4	5.8	4.3	6.5	6.6	3.9	4.5



## Haizea

Haizeari dagokionez, hego-osagaia izan zen nagusi, batez ere hirugarren koadranteke fluxuak, hilaren azken egunetan izan ezik, egun horietan fluxu kontinentala gailendu zen.

Hilaren bigarren herenean ibili zen haizea indartsuago eta egunero haize-bolada oso gogorak izan ziren. Hilaren 13an, 16an eta 18an haize-boladek 100 km/h abiadura gainditu zuten; egun horietan izan genuen egoera sinoptikoa antzekoa izan zen, aska batek Penintsula zeharkatu zuen mendebaldetik ekialdera. Hilaren 18an izan ziren haize-boladarik gogorrenak, batez ere Bizkaiko haizeguneetan (Matxixako 144 km/h, Arboleda 118.1 km/h, Cerroja 114.1 km/h, Oiz 112.3 km/h, Orduña 105.5 km/h, La Garbea 100.1 km/h) eta haizeguneak ez diren beste zenbait tokitan ere bai (Gardea 81.4 km/h, Zizurkil 80.6 km/h).

## Analisia

### Abenduaren 1etik 3ra

Abenduaren hasieran Azoreetako antizikloia Penintsularen mendebaldean zabaldu zen. Kantauri Itsasoan fluxu zonala ezarri zen eta latitude altuagoetatik zebiltzan depresio batzuei lotutako fronte batzuen muturrek lurraldea zeharkatu zuten. Eguraldia aldakorra izan zen, batez ere ipar-isurialdean. Euri txikia egin zuen eta tenperatura urteko garai hauetan ohikoa dena baino altuagoa izan zen, 6-11 °C artekoa.

### Abenduaren 4tik 6ra

Egun hauetan eguraldia egonkorra izan zen. Presio altuak Penintsulan eta Europa erdialdean zabaldu ziren eta tenperatura ohikoa dena baino altuagoa izan zen maila guztietan (850 hPa mailan 12 °C ingurukoa, lurrazalean 20 °C ingurukoa kantauri isurialdeko zenbait lekutan).

### Abenduaren 7tik 9ra

Hilaren 7an fronte hotz ahul batek, ipar-mendebaldeko haizeak bultzatuta, presio altuen eremuan sartzea lortu zuen, eta arratsaldean eta gauean ipar isurialdean euria egin zuen. Hurrengo egunetan hobera egin zuen eguraldiak eta zerua hodei gutxirekin egon zen. Hilaren 9an presio altuak iparralderago kokatu ziren, ordea, eta ipar-mendebaldeko fluxuak bidalitako hodei ugari agertu ziren iparraldean; arratsalde-gau partean zirimiria egin zuen.

### Abenduaren 10etik 12ra

Hilaren 10ean presio altuak, 1033 hPa-eko maximoarekin, ekialdera mugitu eta Bizkaiko Golkoan kokatu ziren, 500 hPa-eko mailan Penintsulatik Britainiar uharteetara zabaldua zegoen gailur txiki baten isla. Eguraldia egonkorra izan zen, goizetik aurrera zerua hodei gutxirekin egon zen; goizaldean zerua hodeitsuago egon zen eta zirimiria apur bat egin zuen. Hilaren 11an ere zerua hodei gutxirekin egon zen, goi-hodeien tarte hodeitsu batzuekin. Hainbat tokitan



izotza egin zuen, tenperatura minimoen artean Ozaetan neurtutakoa izan zen aipagarriena, -2.5 °C.

### **Abenduaren 13tik 14ra**

Hilaren 13tik aurrera egoera goitik behera aldatu zen. Landetatik igaro zen depresio bati loturiko fronte-sistema batek lurraldea zeharkatu zuen; depresio hori 500 hPa-etan zegoen aska baten isla zen eta bere barnean aire masa hotza zeraman, -27 °C-ko tenperatura. Eguraldia ezatsegina izan zen, ipar-mendebaldeko haize gogorra ibili zen eta euria oso ugaria izan zen. Gipuzkoako ekialdean 50 mm baino gehiago pilatu zen. Tenperatura normalagoa izan zen eta elur-kota 1200 m-ra jaitzi zen.

### **Abenduaren 15a**

Hilaren 15ean hego-mendebaldetik presio altuen ziri txiki bat zabaldu zen gurean eta eguraldiak hobera egin zuen. Ateri egon zen, tenperaturak gora egin zuen eta haizea hego-mendebaldetik finkatu zen.

### **Abenduaren 16a**

Fronte batek Kantauri Itsasoa zeharkatu zuen eta goizean euria egin zuen, Araban ugariago. Arratsaldean goi-geruzan zegoen aire hotzak sortutako gune konbektibo batzuk garatu ziren, gero Araba ekialdean eta Gipuzkoa ekialdean eragin zutenak. Kostaldean mendebaldeko haizea indartu egin zen.

### **Abenduaren 17tik 19ra**

Hilaren 17an presio altuak Penintsularen hegoaldean zabaldu ziren, eta eguna aurrera joan ahala Penintsulan kokatu ziren, 1032 hPa-eko balio maximoarekin. Goi-geruzan mendebaldeko fluxu indartsua ezarri zen, baina hala eta guztiz ere gailur txiki bat sortu zen; gailur hori ekialdera mugitu zen gero, lurrazalean bezala. Hilaren 18an presio altuen artean fronte hotza agertu zen; frontea heldu aurretik hego-mendebaldeko haizea gogor ibili zen. Erdi mailako hodei eta goi-hodei ugari ekarri zituen fronte horrek gurera, baina euria urria izan zen. Hilaren 19an ere hodeiak ugariak izan ziren eta haizeguneetan mendebal/hego-mendebaldeko haizea gogor ibili zen. Arratsaldean euri txikia egin zuen zenbait lekutan, batez ere barnealdean.

### **Abenduaren 20tik 26ra**

Hilaren 20tik aurrera presio altuak izan ziren nagusi. 500 hPa mailan gailur subtropikal indartsu bat Penintsulan zabaldu zen. Lurrazalean, hilaren 20an eta 21ean 1034 hPa-eko antizikloi bat Penintsularen hegoaldean kokatu zen eta 850 hPa-eko mailan airearen tenperatura 8-10 °C ingurukoa izan zen. Eguraldia egonkorra eta atsegina izan zen, abendua zela kontutan izanda. Kantauri isurialdean tenperatura maximoak 18-20 °C ingurukoak izan ziren. Zeruan hodei gutxi agertu ziren, erdi mailako hodei eta goi-hodei batzuk tarteka. Hegoaldeko haizea ibili zen, hilaren 20an eta 21ean indartsu mendi inguruetan. Hilaren 22tik 24ra gailurra iparralderago zabaldu zen maila guztietan; presio altuen gunea, beraz, Bizkaiko golkoan kokatu zen hasieran, gero, hilaren 24an, Ingalaterran. Haizea aldatu eta aldakor geratu zen, indarrrik gabe; arratsaldeetan kostaldean brisa ibili zen. Egoera hori zela eta, tenperatura



minimoek behera egin zuten eta hilaren 23tik aurrera barnealdean izotza egin zuen, batez ere Araban; maximoak ere neguko itxura hartuz joan ziren. Hilaren 26an Ebro ibarrean lainoa iraunkorra izan zen eta horregatik tenperatura maximoak baxuak izan ziren egun horretan han, Páganos 3 °C eta Moreda 5 °C.

### Abenduaren 27tik 31ra

Hilaren 27an egoera aldatu zen, Penintsularen iparraldean aire hotza agertu baitzen goi-geruzan. Hurrengo egunetan mendebaldetik etorritako ezegonkortasun-lerro batek lurraldea zeharkatu zuen eta Azoreetako antizikloiaren laguntzaz iparraldeko fluxua ezarri zen. Beraz, giroa goibela izan zen eta Gipuzkoan euria egin zuen. Hilaren 29an, ordea, presio altuak gailendu ziren berriro: Azoreetako antizikloia Europan zabaldu zen eta ipar-ekialdeko fluxua izan genuen gurean. Eguraldia lehorra izan zen eta EAEko barnealdean lainoa sarri sortu zen, ez ordea Ebro ibarrean. Tenperatura minimoak gero eta baxuagoak izan ziren; maximoek, aldiz, gora egin zuten hilaren azken egun haietan.






## Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2018ko abenduko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min. °C	Temp. min.abs. °C	Izotz-egunak	Pilatutako euria l/m <sup>2</sup>	Egun batean pilatutako euri max l/m <sup>2</sup>	Euri-egunak.
Deusto	11.5	15.3	20.0	8.3	1.6	0	16.8	5.3	5
Lasarte	10.9	14.6	19.7	7.5	3.1	0	88.0	32.4	8
Arrasate	8.6	13.4	19.4	4.7	-0.2	1	53.4	25.9	7
Abetxuko	6.4	11.8	16.7	1.9	-3.4	7	21.0	10.5	3
Páganos	6.2	10.0	14.8	2.8	-2.4	3	26.9	15.2	3



## Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
 
 Temperatura minimoa
 
 Batez besteko tenperatura
 
 Temperatura maximoa




# Prezpitazioaren jokaera


**Behatutako prezpitazioa**  
*Precipitación observada*




**Prezpitazio normala**  
*Precipitación normal*



**Prezpitazio normalarekiko desbideratzea**  
*Desviación respecto a la precipitación normal*



**Prezpitazio normalarekiko portzentaia**  
*Porcentaje respecto a la precipitación normal*





## Muturreko egoerak

**Abenduan 9 abisu hori igorri ziren, 1 izotzagatik, 2 haizeagatik haizeguneetan, 4 olatuen altueragatik nabigaziorako eta 2 itsasaldeko arriskuagatik.**

- Hilaren 9an olatuen altuera adierazgarria 3.5 metrotik gora kokatu zen, Arratsaldea aurrera joan ahala gero eta altuagoa izan zen, gauean 4.5 m ingurukoa (Pasaiako Portua, 4.4 m 23:00etan). Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3 m inguruko olatuak altxatu zituen, gauean 4 m-koak. Olatuen arteko periodoa 14 s-koa izan zen; arratsaldean igo egin zen eta azken orduetan 19-20 s ingurukoa. Ipar-mendebaldeko haizea ibili zen, 3-4ko indarrarekin, arratsaldearen hasieran 5eko tarteeekin. Itsaskirria edo itsaskia eragin zuen haize horrek, arratsaldearen hasieran itsaski handiko guneekin.

*Igandea, hilak 9: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 10ean, goizaldean, olatuen altuera adierazgarria 4.5 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa 18-17 s-koa (Pasaiako Portuan, 4.44 m 00:50ean). Itsasgora 06:04an (ordu lokala) 4.19 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak:  $I=6.3$  m eta  $I_{max}=7$  m. Eguna aurrera joan ahala olatuen altuera adierazgarria jaitsi egin zen; gauean 2-2.5 m ingurukoa izan zen. Egunaren lehenengo partean ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3-3.5 m inguruko olatuak altxatu zituen, bigarren partean jaitsi eta gauean 2-2.5 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa 15-14 s-koa. Haizea aldakor ibili zen, 2-3ko indarrarekin, arratsaldean eki-osagaira aldatu eta 3-4ko indarrarekin ibili zen. Itsaskirria edo itsaskia eragin zuen.

*Astelehena, hilak 10: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 05etatik 07etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 15etara ordu lokala*

- Hilaren 13an, arratsaldea aurrera joan ahala olatuen altuera adierazgarria igo eta gauean 3.5 m ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 2-2.5 m inguruko olatuak altxatu zituen, gauean 3.5-4 m-koak. Eguerdian olatuen arteko periodoa 15 s-koa izan zen, arratsaldean 17-18 s-koa izan zen. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizeak, 6ko indarrarekin, itsaso zakarra eragin zuen; arratsalde-gau partean 7ko indarra hartu zuen eta itsaso oso zakarra eragin zuen. Itsasgora 20:36an (ordu lokala) 3.68 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak:  $I=5.8$  m eta  $I_{max}=6.4$  m.

*Osteguna, hilak 13: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 19etatik 22etara ordu lokala.*





- Hilaren 13an Araba hegoaldeko haizeguneetan eta Bizkaiko mendebaldekoetan mendebal/ipar-mendebaldeko haize-boladek 100 km/h abiadura gainditu zuten (Herrera 104.8 km/h, Cerroja 100.1 km/h), baita haizeguneak ez diren zenbait tokitan ere (Páganos 95.4 km/h).

*Osteguna, hilak 13: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan kostaldean 12etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 14an olatuen altuera adierazgarria 3.5 metrotik gorakoa izan zen (Pasaiaiko Portuan, 3.9 metro 09:00etan). Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 2.5-3 metro inguruko olatuak altxatu zuten, olatuen arteko periodoa 15-16 segundakoa zelarik. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizeak, 6ko indarrarekin, itsaso zakarra eragin zuen. Arratsaldean haizea aldakor ibili zen, 2-3ko indarrarekin, eta itsaskirria izan zen; azken orduetan hegoaldetik finkatu zen eta 3-4ko indarra hartu zuen.

*Ostirala, hilak 14: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 21etara ordu lokala.*

- Hilaren 18an Bizkaiko haizeguneetan hego-osagaiko haize-boladek 100 km/h abiadura gainditu zuten (Matxitxako 144 km/h, Arboleda 118.1 km/h, Cerroja 114.1 km/h, Oiz 112.3 km/h, Orduña 105.5 km/h, La Garbea 100.1 km/h), baita lurralde osoan sakabanatutako haizeguneak ez diren zenbait tokitan ere (Gardea 81.4 km/h, Zizurkil 80.6 km/h).

*Asteartea, hilak 18: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 15etara ordu lokala.*

- Hilaren 31an Mediterraneo isurialdeko bailaren hondoetan eta kantauri isurialdeko zenbait tokitan izotz txiki-handia egin zuen.

Estazioa	tmin °C (hh:mm)	Estazioa	tmin °C (hh:mm)
Etura	-2.1 06:30	Abetxuko	-3.4 07:50
Sarria	-2.1 08:20	Arkauti	-3.5 07:20
Saratxo	-2.2 08:00	Otxandio	-3.6 07:50
Zambrana	-2.4 07:30	Subijana	-3.8 07:50
Ilarduia	-2.6 08:20	Espejo	-3.8 08:00
Navarrete	-2.8 07:10	Albaina	-4.0 07:40
Iturrieta	-3.0 04:10	Salvatierra	-4.0 08:20
Balmaseda	-3.0 07:50	Berastegi	-4.1 08:00
Egino	-3.1 08:20	Pagoeta	-4.4 07:00
Altube	-3.2 06:30	Trebiño	-4.4 07:40
Alegría	-3.2 07:50	Ozaeta	-4.6 07:50

*Astelehena, hilak 31: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.*



## Terminologia

*Batez besteko tenperatura:* hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak  $\geq 1$  mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

*Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:*  $f < \%20$ . tenperatura, urterik beroenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso hotza:*  $f \geq \%80$ . tenperatura, urterik hotzenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

*Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea*  $f < \%20$ . prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso lehorra:*  $f \geq \%80$ . prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

[http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual\\_estilo/eu\\_9900/eu\\_manual.html](http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html).

**OHARRA:** txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.